

2023ko MAIATZAREN 4ko BILKURA BEREZIA

LEHEN DEIALDIA

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren lauko hamalauetan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura berezia egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

María Isabel Cañada Zorrilla
Juan Jose Echavarren Salvador
Francisco Javier Erro Ramirez
Garoa Gartziandia Agirrezabala
Carlos Iriarte Iraceburu
Javier Diez Huguet

Idazkaria: Mainer Muguiro Perez

Alkate-udalburuak bilkurari hasiera eman ondoren gai zerrendako gaietara ekin zaie, hona hemen:

1.- Artzibarren baso lanak egitea adjudikatzea. 2022-2023 kanpaina.

Ikusirik “Artzibarren baso lanak egitea. 2022-2023 kanpaina” adjudikatzeko bideratu den kontratazio txostena, publikitatez gabeko prozedura errazturen bidez egiteko.

Prozeduran honako enpresei parte hartzera gonbidatu zitzaizela kontuan hartuz:

- CAMPOS REY TRABAJOS FORESTALES, S.L.
- EXCAVACIONES ABAURREA SL
- EXCAVACIONES ELCANO SESMA SL
- GUILLEN OBRAS Y PROYECTOS, S.L.
- NIVELACIONES PAMPLONA

Eta ezarritako epean gonbidatutako bost enpresetatik hiruk eskaintzak aurkeztu dituztela.

Kontratazio-mahaiak, “Administrazio-dokumentazioa” deituriko 1. kartazaleko dokumentazio guztia aztertu ondoren, esleipen-hartzaile guztiak onartzea erabaki zuen.

Kontratazio Mahaiak formulen bidez neurgarriak ez diren irizpideen eskaintzak ireki zituen eta emaitzak hauek izan ziren:

	EXCAVACION ES ABAURREA SLL	EXCAVACION ES ELCANO SESMA SL	CAMPOS REY TRABAJOS FORESTALES, S.L.
Deskripzio Memoria (Puntuak: 0tik 15era)	9,5	9	12,5
Lan-plana (Puntuak: 0tik 15era)	10	10	15
GUZTIRA	19,50	19,00	27,50

Beranduago eta behar bezala iragarritako ekitaldi publikoan formulen bidez neurgarriak diren eskaintzak ireki ziren eta emaitzak hauek izan ziren:

	EXCAVACIONES ABAURREA SLL	EXCAVACIONES ELCANO SESMA SL	CAMPOS REY TRABAJOS FORESTALES, S.L.
Prezioa	57,93	60	59,99
Irizpide sozialak	0	3	0
GUZTIRA	57,93	63,00	59,99

Emaitza honakoa da:

zk.	Lizitatuzaileak	Puntuazio osoa: 100 pt.
1	EXCAVACIONES ABAURREA SLL	77,43

2	EXCAVACIONES ELCANO SESMA SL	82
3	CAMPOS REY TRABAJOS FORESTALES, S.L.	87,49

Emaitzak ikusita, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen adjudikazioa CAMPOS REY TRABAJOS FORESTALES SL-ri egitea, IFK B50562230, helbidea Justicia Mayor Aragon, 39, 1. D, 50600 Ejea de los Caballeros (Zaragoza), 84.000,75 eurotan, bez kanpo, eskaintzarik hoberena baita kontuan hartuta Artzibarko Udalak 2023ko urtarrilaren 31n kontratazioa arautzeko onetsi zuen baldintzen plegua, eta Akta Kontratazio Organoari aurkeztea, hala badagokio, kontratua adjudika dezan.

Ikusirik 1722 6310001 “baso lanak 2023ko kanpaina” kontu sailean kreditu nahikoa dagoela.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

LEHENIK: Lizitazio ekitaldia ontzat ematea, lizitatzaille guztiak onartuz.

BIGARREN: “Artzibarren baso lanak egitea. 2022-2023 kanpaina” egiteko prozedura erraztuaren bidez CAMPOS REY TRABAJOS FORESTALES SL-ri adjudikatzea, IFK B50562230, helbidea Justicia Mayor Aragon, 39, 1. D, 50600 Ejea de los Caballeros (Zaragoza), 84.000,75 eurotan, bez kanpo.

HIRUGARREN: CAMPOS REY TRABAJOS FORESTALES, S.L.ri erabaki honen berri ematea.

LAUGARREN: Gainerako lizitatzaillei erabaki honen berri ematea.

BOSGARREN: Udal honetako alkateari ahalmena ematea kontrataziotik eratorriko diren dokumentuak sina ditzan. “

2.- 2023ko Baso lanen zuzendaritzaren adjudikazioa onartzea.

Ikusirik Ingurumeneko zuzendari nagusiaren 2022ko maiatzaren 2ko 332/2022 Ebazpenaren bidez, baso-jardueretarako 57.142,65 euroko dirulaguntza ematea onartzen dela.

Ikusirik Ingurumeneko zuzendari nagusiaren 2022ko maiatzaren 2ko 241/2022 Ebazpenaren bidez, baso-jardueretarako 5.252,97 euroko dirulaguntza ematea onartzen dela.

Ikusirik Kontratu Publikoen 2/2018 Legearen 81. artikulua, zenbateko txikiko kontratuertarako araubide berezia ezartzen duena, 15.000 eurotik gorakoak ez diren obra-kontratuak izapidetzeko, kreditu-erreserba eta dagokion faktura aurkeztu behar direla hura izapidetzeko.

Ikusirik 2023ko Baso Lanen 1722 631001 kontu-sailean badagoela diru nahikorik gastu horiei aurre egiteko.

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

LEHENIK: Proiektua idaztea eta zuzendaritza lana egitea Lur Geroari esleitzea, aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 8.137,67 € (Bez kanpo).

BIGARREN: Adjudikaziodunari erabaki honen berri ematea, dagozkion ondorioak sor ditzan.

3.- Eskaerak eta galderak.

Ez dago

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hamahiruak direlarik, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.